



ERAIKINEN GARBIKETA – INGURUMEN-IRIZPIDE SINPLIFIKATUAK

Prozedura ireki bidez kontratatzeko ingurumen-irizpideak

Oinarrizko maila	Maila aurreratua
KONTRATUAREN XEDEA:	KONTRATUAREN XEDEA:
<p>Kontratu honen xedea administrazioaren eraikinetan garbiketa zerbitzua emateko gutxieneko baldintzak definitzea da.</p> <p>Zerbitzu hori ingurumena eta lan-osasuna gehiago errespetatzen duten metodo, praktika eta produktuak erabiliz emango da, eta horrek, besteak beste, eraikinetan indarrean dauden gaikako bilketa-sistemei eutsiz hondakinak era egokian kudeatzea barne hartuko du.</p>	<p>Kontratu honen xedea administrazioaren eraikinetan garbiketa-zerbitzua emateko gutxieneko baldintzak definitzea da.</p> <p>Zerbitzu hori ingurumena eta lan-osasuna gehiago errespetatzen duten metodo, praktika eta produktuak erabiliz emango da, eta horrek, besteak beste, eraikinetan indarrean dauden gaikako bilketa-sistemei eutsiz hondakinak era egokian kudeatzea barne hartuko du.</p>
HAUTAKETA-IRIZPIDEAK (nahitaez betetzekoak):	HAUTAKETA-IRIZPIDEAK (nahitaez betetzekoak):
<p>1. Garbiketa-metodoetan eta zerbitzuaren ingurumen-alderdien arloan trebatutako koordinatzaile bat izatea.</p> <p><u>Egiaztapena:</u> <i>Pertsona horren curriculum vitae-a eranstea.</i></p>	<p>1. Garbiketa-metodoetan eta zerbitzuaren ingurumen-alderdien arloan trebatutako koordinatzaile bat izatea.</p> <p><u>Egiaztapena:</u> <i>Pertsona horren curriculum vitae-a eranstea.</i></p> <p>2. Ingurumen-kudeaketako jardunbide egokiak sistematikoki aplikatzearen bermea sartzea kontratuaren exekuzioan, horrela egiaztatuta:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Garbiketa zerbitzuarentzako ziurtatutako ingurumen-

	<p>kudeaketako sistema bat (EMAS, ISO 14001, Ekoscan edo baliokidea);</p> <ul style="list-style-type: none"> - Europako Etiketa Ekologikoa edo garbiketa zerbitzuentzako I. motako beste ekoetiketa bat; edo - Zerbitzua betetzerako orduan lan-osasuna babesteko eta ingurumena zaintzeko jardunbide egokiak sistematikoki aplikatzen direla frogatzen duten arlo garrantzitsuak identifikatzeko dokumentazioa, ingurumen-hobekuntzako plana, laneko prozedurak/jarraibideak eta kontrol erregistroak. <p><u>Egiaztapena:</u> Lehenengo kasuan, enpresak ingurumen-kudeaketako sistemaren ziurtagiria erantsi beharko du. Bigarrenean, garbiketa-zerbitzuentzako ekoetiketaren ziurtagiria. Hirugarrenean, lizitatzailleak bere gaitasuna balioesteko dokumentazio esanguratsua erantsi beharko du.</p>
<p>ESPEZIFIKAZIO TEKNIKOAK (nahitaez betetzekoak):</p>	<p>ESPEZIFIKAZIO TEKNIKOAK (nahitaez betetzekoak):</p>
<p>Garbiketarako produktuak</p> <p>1. Honako hauek erabiltzea debekatuta dago:</p> <ul style="list-style-type: none"> - aire-freskagarriak - pixatokietarako pastillak edo lurrintzeko substantziak - esprai formatuko produktuak - desinfektatzaileak edo desinfektatzaileak dituzten produktuak (lixiba, kasu) garbitasun orokorrerako, komunetan eta zehaztutako azaleretan salbu. <p><u>Egiaztapena:</u> Proposamenean barne hartutako produktu bakoitzeko, berme hau aurkeztu beharko da: 5.a (ikus egiaztapen-dokumentuak).</p> <p>2. Lau garbiketa-produktu ohikoenek –erabilera anitzeko garbitzailea, zorua garbitzekoa, beirak garbitzekoa eta</p>	<p>Garbiketarako produktuak</p> <p>1. Honako hauek erabiltzea debekatuta dago:</p> <ul style="list-style-type: none"> - aire-freskagarriak - pixatokietarako pastillak edo lurrintzeko substantziak - esprai formatuko produktuak - desinfektatzaileak edo desinfektatzaileak dituzten produktuak (lixiba, kasu) garbitasun orokorrerako, komunetan eta zehaztutako azaleretan salbu. <p><u>Egiaztapena:</u> Proposamenean barne hartutako produktu bakoitzeko, berme hau aurkeztu beharko da: 5.a (ikus egiaztapen-dokumentuak).</p> <p>2. Lau garbiketa-produktu ohikoenek –erabilera anitzeko garbitzailea, zorua garbitzekoa, beirak garbitzekoa eta</p>

<p>zeramikazko gainazalak garbitzekoa– I. motako ekoetiketaren baten baldintzak beteko dituzte, adibidez, Europako Etiketa Ekologikoa, Beltxarga Zuria ekoetiketa edo produktuok izan beharreko osagai kimikoak zehazten dituen beste ekoetiketa baliokideren bat.</p> <p>Egiaztapena: <i>Proposamenean sartutako produktu bakoitzerako berme hauetakoren bat aurkeztu beharko da: produktuen 1., 2. eta 3.a (ikusi egiaztapen-dokumentuak). Garbiketa zerbitzuentzako 1.ak ere balio du.</i></p>	<p>zeramikazko gainazalak garbitzekoa– I. motako ekoetiketaren baten baldintzak beteko dituzte, adibidez, Europako Etiketa Ekologikoa, Beltxarga Zuria ekoetiketa edo produktuok izan beharreko osagai kimikoak zehazten dituen beste ekoetiketa baliokideren bat.</p> <p>Egiaztapena: <i>Proposamenean sartutako produktu bakoitzerako berme hauetakoren bat aurkeztu beharko da: produktuen 1., 2. eta 3.a (ikusi egiaztapen-dokumentuak). Garbiketa zerbitzuentzako 1.ak ere balio du.</i></p>
<p>Komuneko papera eta eskuak lehertzeko papera</p> <p>3. Produktuek %100 birziklatuak izan behar dute.</p> <p>Egiaztapena: <i>Proposamenean barne hartutako produktu bakoitzeko, berme hauetakoren bat aurkeztu beharko da: 1.goa eta 4.a (ikusi egiaztapen-dokumentuak).</i></p>	<p>Komuneko papera eta eskuak lehertzeko papera</p> <p>3. Produktuek % 100 birziklatuak eta batere klororikgabeak/ Totally Chlorine Free (TCF) izan behar dute.</p> <p>Egiaztapena: <i>Proposamenean barne hartutako produktu bakoitzeko, berme hauetakoren bat aurkeztu beharko da: 1.goa eta 4.a (ikusi egiaztapen-dokumentuak).</i></p> <p>4. Produktuaren formulazioak konposatu kimikoak izateari dagokionez, I. motako ekoetiketaren batean zehaztutako irizpideak betetzea, adibidez: Aingeru Urdina etiketan, Europar Batasuneko Etiketa Ekologikoan, Beltxarga Zurian edo baliokideetan zehaztutakoak.</p> <p>Egiaztapena: <i>Proposamenean barne hartutako produktu bakoitzeko, berme hauetakoren bat aurkeztu beharko da: 1.goa, 2.a, 3.a eta 4.a (ikusi egiaztapen-dokumentuak).</i></p>
	<p>Zabor-poltsak</p> <p>5. Zabor-poltsak plastiko % 80 birziklatuzkoak eta polietileno edo polipropilenoak izan behar dute.</p> <p>Egiaztapena: <i>Proposamenean barne hartutako produktu bakoitzeko, berme hau aurkeztu beharko da: 4.a (ikusi</i></p>

	egiaztapen-dokumentuak).
GAUZATZE-IRIZPIDEAK (nahitaez betetzekoak):	GAUZATZE-IRIZPIDEAK (nahitaez betetzekoak):
<p>1. Enpresak bermatu beharko du langileek ingurumen-prestakuntza jasotzen dutela, hondakinak behar bezala kudeatzen direla, ontzien etiketatzea zuzena dela eta kontratuaren gauzapenean ingurumenaren alderdiari jarraipena egiten zaiola.</p> <p>Kontratua abian jartzean prestakuntza-plana eta hondakinen kudeaketa-plana aurkeztu behar dira. Azken horretan, hondakin arriskutsuak zein kudeatzaile baimenduri entregatuko zaizkion adieraziko da. Horrez gain, urtero planon jarraipen txostena aurkeztuko da, baita eskaintzan adierazitako ingurumenarentzat egokiagoak diren produktuak erosi izana frogatzen duten fakturak ere.</p>	<p>1. Enpresak bermatu beharko du langileek ingurumen-prestakuntza jasotzen dutela, hondakinak behar bezala kudeatzen direla, ontzien etiketatzea zuzena dela eta kontratuaren gauzapenean ingurumenaren alderdiari jarraipena egiten zaiola.</p> <p>Kontratua abian jartzean prestakuntza-plana eta hondakinen kudeaketa-plana aurkeztu behar dira. Azken horretan, hondakin arriskutsuak zein kudeatzaile baimenduri entregatuko zaizkion adieraziko da. Horrez gain, urtero planon jarraipen txostena aurkeztuko da, baita eskaintzan adierazitako ingurumenarentzat egokiagoak diren produktuak erosi izana frogatzen duten fakturak ere.</p>
ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK:	ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK:
	<p>Garbiketako produktuak, gehienez 5 puntu</p> <p>1. Lau garbiketa-produktu ohikoenak, hau da, erabilera anitzeko garbitzailea, zorua garbitzekoa, beirak garbitzekoa eta zeramikazko gainazalak garbitzekoa ez diren gainontzeko produktuak – desinfektatzaileak salbu– ez dira egongo jarraian zehaztutako arrisku ohar batekin sailkatuta eta etiketatuta 1272/2008 (EE) Erregelamenduaren eta osteko zuzenketen arabera: H300, H301, H304, H310, H311, H317, H330, H331, H334, H340, H341, H350, H350i, H351, H360F, H360D, H360FD, H360Fd, H360Df, H361f, H361d, H361fd, H362, H370, H371, H372, H373, H400, H410, H411, H412, H413, H420 eta EUH070.</p> <p><u>Egiaztapena:</u> Proposamenean barne hartutako produktu</p>

	bakoitzeko, berme hauetakoren bat aurkeztu beharko da: 1.goa, 2.a, 3.a eta 6.a (ikusi egiaztapen-dokumentuak).
--	----------------------------------------------------------------------------------------------------------------

EGIAZTAPEN-DOKUMENTUAK (*):

1. Europar Batasuneko Etiketa Ekologikoa		4. Fitxa teknikoa
2. Beltxarga Zuria etiketa		5. Enpresaren deklarazioa
3. Aingeru Urdina etiketa		6. Segurtasun-fitxa

(*): Horiek dira baloratuko den espezifikazio edo irizpide bakoitzaren betetzea modu argienez bermatzen duten ingurumen-ziurtagiriak eta ekoetiketak edota informazioa jaso dezakeen dokumentazioa, baina egiaztapen-dokumentazio baliokidea ere onartuko da, finkatutako irizpideak betetzen direla argiro frogatzen badute.

OHARRAK:

Dokumentu honetan garatutako irizpideez gain, ontziekin edo tresnekin eta makineriarekin zerikusia duten baldintzak ere adieraztea interesgarria izan daiteke.

Informazio gehiago nahi izanez gero, **www.ihobe.eus** webguneko **Erosketa Publiko Berdearen atala** kontsulta dezakezu edo lhoberekin harremanetan jar zaitezke, bide hauetatik:

- Tel.: 94 423 07 43
- Helbide elektronikoa: compra.publica@ihobe.eus